

» **12 ■ 94.000 ibilgailu egunero**  
Donostiako saihesbidea 94.000 ibilgailuk erabiltzen dute egunero. Horiematik 15.000 kamioiak dira.



**20 ■ Polonian Donal Tusk garaile**  
Gehiengo soil ez bozak irabaztea lortu du PO Plataforma Zibikoa izeneko alderdiak.

FILIPE ARAMENDI Abokatua

## «Politika neoliberalaren bidetik, erreformak odolustea du ondorio»

A. R.  
Baiona

Errentagarritasuna antolaketan irizpide bihurtuta zerbitzu publikoak arima galtzen duela dio Aramendik. Baionako abokatuek Donapaleuko (Nafarroa Beherea) eta Miarritzeko (Lapurdi) auzitegiak ixtea salatu dute, eta kezkatuta ikusten dute Baionakoaren geroa. **Ostiralean protesta egin zenuten Pauen Frantziako justizia kartaren erreforma salatzeke. Zertan da egoera Ipar Euskal Herrian?**

Baionako auzitegiak kudeatzen duen eremuan bi auzitegi desagertuko dira: Miarritzeko eta Donapaleuko. Oraingoan, Baionako auzitegia dagoen bezala atxikitzea deliberatu dute; alta, hori ere mehatxupean dago. 2010ean arlo zibilko egituraketa aztertuko dutela jakinarazi du Frantziako Justizia ministroak, beharren arabera aldatetako eginez. Argi errateko, Pauera eramanen dituztela. Baionako abokatuek gogor salatzen dugu bi auzitegi desagertzea eta auzitegi nagusia baldintzapean ezartzea.

**Zerbitzu publikoak hurbileko zerbitzua eman behar badu, nola uler daiteke Donapaleuko auzitegia kentzea, baserri eremuan egonik?**

Donapaleuko biziki larria da, Nafarroa Beherean zerbitzu guztiak kendu nahi dituztelako. Ipar Euskal Herrin azpimarratu behar dugu Zuberoa dagoeneko Oloroera (Biarno) lotua zela. Zerbitzu publikoaren helburua ez da errentagarri izatea, hurbileko zerbitzua eskaintzea baizik.

**Erabiltzaileen ikuspegitik, zer esan nahi du erabaki horrek?**

Argi mintzatzeko, Donapaleun ziztuzten zerbitzuak Baionan izanen direla. Horrek esan nahi du denbora gehiago eta xahutze gehiago. Tutoretza kasuetan, epaileak zaxar etxeetara joanen direla erran du ministroak, baina sinesgaitza da. 2009an sartuko da indarrean neurria, eta ikusiko dugu.



GAIZKARI/RCZ

**Zenbat lanpostu galduko dira?**

Langileek ez dakite oraindik. Epaileak Baionako auzitegiari lotu ditzaizkete, baina idazkariek edo langileek ez dute berririk, eta ministroak ez die plangintzarik aurkeztu.

**Baionan instrukzio poloa sortzea aipatu du ministroak. Zer deritzozu horri?**

Landetako eskumen batzuk Baionara ekarri nahi ditu, Akize eta Mont-de-Marsanetik. Baionakoa gainezka dago. Ez dakigu nola gauzatu duen hori. Tokirik ez dago, lana gainezka dugu, eta, gainera, ez du baliabide gehiagorik aipatu.

**Baionako auzitegiaren iraupena baldintzapean dago?**

Erreformaren lehen fasea baino ez dute aipatu. Ez da deus salbata. Oraingoan, ez dute berretsi bertako eskumenak Pauera edo Bordelera eramateko xedea. Baina, 2010era begira, iragarri dute berrantolaketan egingen dela gai zibiletan. Adibidez, eraikuntzari lotuak diren arazoak Bordelera joanen lirateke.

**Lan auzitegiari buruzko erabakirik ez dute aipatu.**

Eztabaidak egiten ari dira. Lan eta justizia ministroek ados jarri behar dute. Baldintzapean dago. Politika neoliberalaren eskutik erreformak odolustea du ondorio.

## Hondar ordulariaren jabea



ANALISIA

AITOR RENTERIA

**H**area eta soberakina da hondarra. Hondar ordulariaren protagonista ez deusa, eta, aldi berean, azietetan bazterten den hura. Zuberoako, Nafarroa Behereko eta Lapurdiko zerbitzu publikoen bilakaerak badi isla bi adieretan. Frantziak zerbitzu publikoak moldatzeari ekin dio, eta hainbat zerbitzu Euskal Herriatik ateratzekotan da. Denbora kontua da, eta, ororen buru, gel-

dituko diren egiturak itxura mantentzeko izanen dira, eta erabakirik kanpoan hartuko dira.

Ahal duelarik, Frantziak Pauera edo Bordelera daramatza erabakiguneak. Deszentralizazioari ekinen ziola agindu zuen Frantziak. Ekin, ekin dio, baina kontzentrazioaren bidez. Lurralde administratibo bakoitzak bere egiturak atxikiko ditu, departamenduetako hiri nagusien onuran. Eta Frantzia da ordulari horren jabea. Hark erabakitzen du zenbat hondar atxiki, eta hustearen abiadura zein izanen den.

Aspaldi ireki zuen jabeak ordulariaren ateka, abantzu oharkabean. Baionako langabezi bulegoko deiak, adibidez, Bordelen kokatua dagoen zerbitzutik kudeatzen dituzte. Nekez ulertuko du Baionako langabeak zergatik erantzuten dioten Bordeletik, baina hori da

deszentralizazioaren izenean hartatu duten kontzentrazio eredu.

Gauza bera gertatzen da Lyon naise des Eaux enpresarekin edo France Telecom-ekin, eta deiak Frantziatik bideratzen dituzte. Azken horren adibidea argigarria da, pribatizazioaren ikur gisa baliatu zuelako Frantziak. Jende lerro luzeak atean, eta, barnean, zerbitzu gutxi. Salmenta bermatzen dute, baina zerbitzua ez. Ezin da diruz ordaindu. Ordainketa automatikoa edo txekia egin behar du telefonoa nahi duenak. Gisa berean, bezeroek arazo bat dutelarik ez dute tokian nehor atzematen eta, kanporatze jo behar dute.

Mamirik gabeko oskolak bihurtu dituzte zerbitzu publikoak. Oldarra delarik erritmoa baretu eta ondoko urteotarako utziko dute zerbitzuen moldaketa. Baina guztiak daude jomugan.

Aurrezle txikiek gehien erabiltzen zuten bankua zen Posta. Due-la urte gutxi arte, herri guztietan presente zegoen eta eraginkorra zen. Alta, errentagarritasunaren izenean zerbitzuak itxi dituzte herri txikietan. Tabako saltzaileek edo herriko saltegi txikiek hartu dute segida. Ez osoa, hala ere. Gutun azalak eta zigiluak saltzen dituzte porru, patata edo ricard bazoeren artean. Salmenta bermatzen dute, ez zerbitzua. Horretarako, hiri handiagoko batera joan behar.

Baionako errugbi taldearen partida ikustera joaten diren bezala, arazoren bat duten herritarrek Baionarako bidaia egin dezaketela auzald du Jean Grenet Baionako auzapez eta Frantziako diputatuak. Bideak onak omen dira, eta aisialdirako balio duten bezala, bertze orotarako ere bai.

Arazoa ez da soilik zerbitzu baten gabezia, egoera orokorra baizik. Emeki-emeki zerbitzu publiko guztiak desegin eta Ipar Euskal Herriatik ateratzen ari dira. Greneten gogetatik segituz gero, herri-

tarrak egun bat beharko luke auzitegiari joan behar duenean, edo zergitan kezka bat duelarik, edo enpresa arloan zailtasunak negoziatu behar dituenean, edo familien laguntzarako kutzarekin harremanetan sartu behar duelarik. Bereizketak, zailtasun ekonomikoak edo osasun arazoak ez dira gauza bitxiak. Beraz, Grenetek go-goeta bururaino eraman eta prekarizatearen daudenei aholkatu beharko lieke Baionan egitea bizitza.

Baina denbora kontua da zerbitzu publikoak Baionatik Pauera eramatea. Orduan, logika berean, hara joan beharko lirateke bizitzera.

Politikagintzan kontrako beharrrak adierazten dira. Ipar Euskal Herriko biztanleen %10ek herri galdeketa eskatu dute, departamenduen, autonomiaren edo berezko instituzioaren aldarria indartzen ari den uenean. Frantziak ez du erantzunik ematen arlo horretan, baina zerbitzu publikoen arloan Ipar Euskal Herria husten ari da, emeki baina etengabe.



OUTLANDER BERRIA

ERREPIDEA EDO MENDIA,  
ZEIN DA ALDEA?

Mitsubishi Outlander berria, akatsik gabe gidatzea segurtatuta dago arte askotarako, Dakar gehien irabazi duen markaren kalitate eta fidagarritasun bikainari esker. "All Wheel Control" sistema, 140 ZPko DI-D motorra, 7 eserleku izateko aukera, eta segurtasun eta erosotasun hornidura osoa.

28.950 €-tik 35.500 €-ra  
www.outlander.es

ALDIKAR:  
Oria etorbidea, 6  
Lasarte-Oria. Tel.: 943 37 65 15

